

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Segurtasun betebeharrak bete ez izanagatik betearazte aginduaren espedientea jakinaraztea

Nahiz eta arauzko eran ahalegindu, zerrendatzen diren pertsonei jakinarazi ezin izan zaienez gero, iragarki honen bidez jakinarazten zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenaren, 59.5 artikulua xedatutakoarekin bat etorritz:

LUISA MARIA URRUTIA RAMIREZ

Segurtasun, osasun, apaindura publiko eta bizigarritasun betebeharrak ez betetzeagatik abiarazitako obrak egiteko agindu espedientea. Obra horiek honetan dautza: bide publikoan zehar nekazaritza ibilgailuen eta kamioien joan-etorria oztopatzen duten intxaurrenduetako adarrak inaustean, zeren eta horietako batzuk lurretik 2 metrora baino ez baitaude. Morillasko 1 poligonoko 611 lurzati katastro erreferentziako higiezinaren jabe zarenez, indarrean dagoen legediak, 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenaren, 84. artikulua xedatutakoa betez, lan horiek egiteko galdatzen dizu. Era berean, espedientean jasotako agiri guztiak aztertu ahal izango dituzu, bai eta, zure eskubideak aldezte aldera, zenbat-nahi alegazio aurkeztu ere. Horretarako, hogeitun egun baliodun izango dituzu, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Entzunaldi izapidea izapide hutsa da, eta ezin zaio errekurtsorik jarri. Horrek ez du esan nahi, ordea, zure eskubideak aldezte aldera, egoki deritzezuna egiterik ez duzula.

Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan adierazten dizut.

Pobes, 2016ko maiatzaren 20a

Alkatea

JESUS BERGANZA GONZALEZ